

Izen ttipiak euskaraz. Aurkezpena

Egun on denei:

Lehenik eta behin eskerrak eman nahi dizkiot Euskaltzaindiari, bereziki Onomastika batzordeko burua den Andres Iñigori eta beste Andresi, euskaltzainburuari, Andres Urrutiari, lan hau argitaratzeagatik, ikertzaileon arazoa maiz horixe baita: liburuak idatzi bai, baina gero zaila izaten da karrikaratzea, garestia delako, jakina. Eskerrak eman nahi dizkiet, orobat, berriemaile izan ditudan lagun guztiei, bereziki Peio Kamino Kaminondo luzaidarrari eta Juan Joxe Zubiri Lujanbio goizuetarrari.

Aitzinean duzuen lan hau, asmoz behintzat, pankronikoa da. Erran nahi dut saiatu naizela eskura nituen datu guztiak, garai guztietakoak, baliatzen, Koldo Mitxelenak eta Joakin Gorrotxategik aztertu zituzten Akitaniako idazkUNETatik hasi, Erdi Aroko eta geroagoko datuetan zehar gure egunetara iritsi arte, zaharrak eta berriak ongi bereiziz, hori bai. Gaurko datu bizi gehienak Nafarroan bilduak direla aitortu behar dut, eta, alderdi honetatik, oraino lantegi zabala dagoela beste herrialdeetan. Badakit dauden guztiak ez ditudala bildu eta geroko agiri bildumek hemen jasotzen ez ditudan izen ttipi berriak azaleratuko dituztela, tankera honetako lehen lana baita, gero osatu, zuzendu eta aberastu beharko dena.

Izen ttipi edo hipokoristikoa familian, lagun artean, konfiantza giroan erabiltzen diren izenen aldaerak dira, *Antton(i)*, *Axun*, *Txixilio*, *Aña*, *Dolores*, *Jose txo* eta abarren modukoak. Arazoa da azken hamarkadetako euskal izendegietan, hein batean euskarak bizitu duen egoera soziolinguistiko bereziarengatik, berez hipokoristikoak direnak izen neutrotzat hartu direla, eta, horregatik, *Beñat*, *Eñaut*, *Matxin* eta beste franko oinarrizko izentzat ugaritu eta hedatu direla, eta euskararen sistema bortxatu dela, neurri batez. Orain, dena dela, legeak atea —edo ataka behintzat— ireki die honelakoei eta, beraz, lan hau ez da gaizki etorriko Onomastika batzordera iritsiko diren hipokoristiko

inguruan erabakia hartzeko tenorean. Alderdi honetatik kontent nago, ekarpen teorikoa ez ezik aplikazio praktikoa ere badukeelako nire liburu honek, araziz.

Lanaren egitura dela eta, aztertutako garaiaz, izandako iturriez eta bestez azalpenak eman eta ondoan, hipokoristiko edo izen ttipia zer den definitzen ahalegindu naiz lehenik eta gero munduan barnako zenbait hizkuntzatan (gaztelania, frantsesa, ingelesa, alemana, errusiera...) gauza hauek, hots, hipokoristikoak, nola moldatzen diren ikusi dut, ez luze ordea, bestela entziklopedia idatziko bainukeen, hau baino adreilu gotorragoa oraindik. Ondoren euskaraz hipokoristikoak egiteko izan diren baliabideak aztertu ditut, alegia, bustidura edo palatalizazioa, atzizkien erabilera eta izenen laburtzea (aitzinetik, gibeletik edo erditik). Gero ondorioak heldu dira, laburdurak eta erabilitako bibliografia, lau azpiataletan hondarreko hau: onomastikaren ingurukoa, agiri bildumak, literatura eta bestelakoak.

Ez dut aurkezpen hau luzatu gogo, baina derradan atzizkietan ehun eta hamabi berrekailu aurkitu ditudala, horietako anitz konposatuak, zenbait kasutan zalantza badut ere, egiazki hipokoristikoak sortzeko erabili ote diren. Hauetako gehienak egun ez dira emankorrak. Fonosinbolismoa, bestalde, usu ibili dugu eta usu ibiltzen dugu euskaraz, arrunt baliabide bizia da gure egunotan ere. Eta beste horrenbeste erran daiteke izenen laburtzeaz.

Bukatzeko, nabarmendu nahi dut izen ttipi asko galdu ditugula bidean, hots, denboraz ohikoak ziren hipokoristiko franko ezezagunak dira orain (gehienez ere oikonimian, leku izenetan eta deituretan finkatu dira), hein batean oinarriko izenak berak galdu direlako edo atzizkia dagoeneko emankorra ez delako. Kasu honetan daude, adibidez, *Txaria*, *Txariako*, *Txartiko*, *Matxikote*, *Txaringo*, *Peruski*, *Joanesgo*, *Xemerot* eta beste hainbeste. Haur baten esperantzetan diren aitatamek kanpoko izenak aukeratu beharrean euskal izena hautatzeko egokiera ederra dute hemen. Badute non aukeratu.

Patxi Salaberrri

Durangon, 2009ko ekainaren 4an